BERAKO OIHUA

"PEÑA RATA" BUNKERRA, IBARDIN – BERA –

1940-ko datarekin, Eusko Jaurlaritzaren artxibo historikoan gordeta, Jose María Lasartek Pirineotako gotorlekuen inguruan Jose Ignazio Lizasori bidalitako txosten bat agertzen da. (253/02 idazkia)

Txosten horretan, "Ingenieros y Batallones de Trabajadores" bezala ezagutzen diren tropek burututa, duela 6 hilabetez geroztik, piskanaka, Frantziako muga guzian barrena, gotorleku sarea eraikitzen ari direla aipatzen da.

Txosten horretan zera azaltzen da: Bidasoa haranean, Aralar eta Andía mendizerretan, Araya ibaian, Iruñea iparraldeko goizerretan, eta Irati eta Aragoi ibaietan ikusitakoaren arabera, toki eta leku hauetan altxatzen ari diren defensa eraikuntzak sendotasun haundikoak direla, 5 metro inguruko diametroa eta 200 Tonatik goitiko pisuarekin, hormigoi armatuaz egindako habiak daudela, habi horiek elkarren artean lotzeko lubakiak eta lurpeko biltegiak mehategien erako galerien bidez lotuak daudelarik..

Ibardin mendiari dagokionez zera dio: Mendi honen eta Bera herriaren artean, "Peña Rata" bezala ezagutzen den muinoa lotuz, errepide kilometro batzuk eraiki direla, Etxalar aldera ematen duen magaletik.

Berako zatiari dagokionez, honako hau esaten da: Mapan erakutsitako lekuetan, pintura berdea eta horiz kamuflatuta, ametralladora habiak amaituta daudela.

"Rata" deituriko mendikaskoan, munizio biltegi eta gordeleku bezala erabiltzeko mehategi erako galería bat eraiki dute. Frantzia aldera duen irteera ahoan, ametralladorentzako hiru habi altxatu dituzte, Zulo hau "Ingenieroen Konpania" batek burutu du hilabete eta erdian eta horretarako bi konpresora erabili dituzte

Beratik hurbil, 8,8 C/M Artilleriako bi baterientzako hormigoi armatuaz egindako kokagunea eta babeslekua egiteko proiektua daukate.

Beran egindako eraikuntza guziak, "Batallones de Trabajadores" bezala ezagutzen diren 14 eta 107 "Batalloiak" burutuak izan dira, Maurizio Iriarte kapitainaren gidaritzapean. Oiartzun ingurunea bezala ezagutzen den eremuan eraiki diren gotorlekuen buruzagia Jose Vallespin Cobian izan da, Bera eta Etxalar eremu horren barruan agertzen direlarik,

Txosten honetan ondorengo argibidea ere azaltzen da: Euskaldunen traidorea bezala ezaguna den Alejandro Goikoetxeak, burutzen dituen bisita ugariak kontutan hartuta, nolabaiteko harremana izan behar duela Pirineoko alde honetan burutzen ari diren gotorlekuen proiektuarekin

AURELIO GUTIÉRREZ MARTÍN